

LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA

1959

URTEgrafiak



Jakinlarien bileretako bat, Arantzazun. Han ziren, besteak beste, Atxaga, Arregi, Pagola, Xarriton, Azurmen- di eta Torrealdai. JAKIN

‘JAKIN’eko 1959 hura

Joseba Intxausti

Jakin-eko kidea

JAKIN aldizkariaren urte bat aukeratu, eta garaiko inguruabarrak gogoratzeko eskatu didate, neuk urte hautatu horretan bizi izandakoaz zerbaiten berri eman dezadan. Bi urte barru, aldizkaria sortu zenetik 60 urte beteko dira, eta non aukeraturik ez zait falta. Nik orain 1959ko urteari helduko diot.

Hiru urte lehenago jaiotako aldizkaria umea zen, artean, inprimategira heldu gabea, polikopiatua soilik, eta umezurtz geratzeko arriskuan zegoen, lehen sortzailerik (I. Bastarrika, I. Bereziartua, I. Urbie- ta, F. Mendizabal) aurreko urtean erabaki baitzuten aldizkaria zuzendari gazteagoen eskuetan uztea.

Kepa Enbeita eta neuri suertatu zitzaigun erreleboa hartzea. Abagune eta ohorea izan zen eskaintza. Gutxi-asko, honela banatu genuen lana bion artean: Kepak laguntzaile eta harpidedunekiko zereginak hartu zituen, idazteari uko egin gabe; nire aldetik, idazlanak bildu, idazleekin harremanak zaindu eta bion artean zerbaki bakoitza paratzea izan zen.

1959ko urte hartan, hizkuntza idatzirako irizpide zahar berri bat iritsi zitzaigun eskuetara, aldizkarian lehendik ere kezka- garria zen arazo bati irtenbidea bilatzen lagunduko ote zigun pentsarazi ziguna.

Euskaltzaindiak arau orokor bat onartu, eta euskal hitzen jatortasuna nondik nora epaitu behar zen adieraziz agiria zabaldu zuen urte horretan. Aldizkarian genbiltza- nontzat –idazle, irakurle nahiz zuzendari- tzako izan– pisu handiko irizpidea zen Euskaltzaindiarena: hitzen jatortasuna neurtzeko horietako bakoitzak zuen era- bilpen-tradizioari begiratu behar zitzaion, eta ez hitzaren mailegu-jatorri hutsari.



Urte hark eman zuen berea: aldizkarirako euskal idazleen arteko hizkuntzareki- ko batasun-bide bat. Ez zen gutxi izan”

Datorren astean...

Kepa Murua

Aldizkarian, jada eztabaidatua genuen hori eta, orokorki gurea bezalako aldizkari batean are larriagozat ageri zitzaigun terminologiaren buruhaustea genuen tarteko, teologiatik bertatik hasita zientzia zehaz- tetako hizkerarainokoa. Euskaltzaindiak ez zion orduan heldu gure beste arazo honi; baina samurtu egin zigun ibilbidea.

Aldizkariaren urte hartako udako zenba- kiak espresuki aitortu zion Akademiari bere gidari zeregina: “Gidari zaitugu. Orta- rako jaio zinan”. Aldizkariak eliz Ikastegie- tan zituen lankideek ere irizpide berarekin jokatu zuten hurrena gure agerkarian, urte hartatik 1964ko *Jakin*-en barneko eraba- kietaraino lehenengo, urte bereko Baiona- ko (1964) eta Ermuko Idazle-Bileretaraino (1968: aldizkariaren 32-33. zenbakian) eta, azkenik, Euskaltzaindiaren Batasun-Ba- tzarreraino (Arantzazu, 1968).

Dena den, ez zen gertatu hori eztabai- darik gabe, *Euzko-Gogoaren* eta *Orixe-* ren lan saiatuarekin etenen bat sortu gabe alegia, hizkuntza batasunak (poli- tikoak bezalatsu) ez baitira errazak izate- n. Dena den, urte hark eman zuen berea: aldizkarirako euskal idazleen arteko hizkuntzarekiko batasun-bide bat. Ez zen gutxi izan, zeregin handia- goetara pasatu aurretik.

artez
euskara zerbitzua



itzulpenak - hizkuntza aholkularitza - papergintza

944 480 000

posta@artez.net

www.artez.net

